

2010. 2011. 2012. 2013

Gizarte Kontseilua 2010-2013

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

2010 2011 2012 2013

Gizarte Kontseilua 2010-2013

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Idazkaritza Nagusia
Lege Gordailua: BI-685-2014
Diseinua eta maketazioa: Wokocreativos, S.L.
Inprimaketa: Gráficas Ulzama, S.L.
Ale kopurua: 1.000

irb i h i d e a

▸ Aurkibidea

AURKEZPENA	07
UPV/EHU-REN GIZARTE-KONTSEILUA	11
▸ Lege-esparrua	13
▸ Gobernu-egitura	14
▸ Eskumenak	15
▸ Osaketa	16
▸ Gizarte Kontseiluko kideak 2006ko urtariletik 2009ko abendura	18
▸ Plan Estrategikoa	20
2010-2013 OSOKO BILKURAN JORRATUTAKO GAIAK	21
JARDUERA NAGUSIAK	37
▸ Plan Estrategikoaren esparruan egindako txosten eta azterketak	39
• UPV/EHU-ren ikuspena	40
• Unibertsitate-enplegua	41
▸ Topalekua. Informazio-buletina	42
▸ www.gizartekontseilua.com	53

Aurkezpenera

► Aurkezpenera

Duela hilabete gutxi batzuetatik naiz UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluaren buru. Hala ere, agenda dela-eta, lau urtez behingo memoria (2010-2013 memoria) aurkezteko ohorea egokitu zait, oso egoera berezian egokitu ere. Alde batetik, gizarte Unibertsitate publikoan ordezkatzeko duen organoa heldutasunera heltzeaz da –hogeita bost urtetan ezarri ohi dugun heldutasunera, hain zuzen ere–, horrek dakarren esperientzia, lan eta finkotasun osoarekin batera. Eta, beste alde batetik, haren egoera ekonomiko, akademiko eta soziala baldintzatzen du gutako askok inoiz bizi izan dugun krisirik latzenak.

Horrelako testuinguruan argitaratu du Kontseiluak bosgarren memoria hau, aurreko urteetan ez bezalako baldintzetan. Garai hartan, 2009. urte inguruan, krisiak ez zuen, oraindik, egun bezain gogor jotzen; organoak arrakastaz lortu zituen lehen Plan Estrategikoan adierazitako helburuak, eta bigarren plana ezartzeko lanean ari zen. Harrezkero, aurreikusitako gidoiaren arabera egin du aurrera bigarren plan horrek, nahiz eta esan beharra dagoen gero eta eskasagoak izan diren baliabideetan finkaturik izan duela begirada.

Garai hartan, neure lekuan zegoen horrek esaten zuen, eta ni bat nator, Kontseiluak ondo funtzionatzen duela, unibertsitate-gobernuan duen zeregina egoki betetzen duela, adostasunean oinarrituta lan egiten duela eta unibertsitateari gizartearen ikuspuntua erantsen diola. Nik horri gehituko diot zeregin garrantzitsu hori oso inguruabar zailetan egitea lortu duela, lanerako jarrera miresgarria erakutsita. Herri honetako erakunde, enpresa eta herritar guztiei eskatu zaie lanerako adore hori, baina geure kasuan bereziki handia izan da.

Memoria honetan ageri den moduan eta nire aurretik buru izan diren horien lanari eta ardurari esker, lau urte hauetan zehar Gizarte Kontseiluak Unibertsitatearekin jarraitu du elkarlanean alde aurreko azterketek hobetu beharreko gisa identifikatu zituzten arloetan, eta helburu estrategikoak



garatzen ere jarraitu du. Helburuok hirujarduketa-ardatzetan banaturik daude: UPV/EHUren itxura hobetzea, goi-mailako hezkuntza publikoan gizartearen presentzia areagotzea eta Kontseilua gizartearen eta unibertsitatearen arteko lotura gisa finkatzea. Hori guztia Unibertsitatea gainbegiratzeko eta gobernatzeko ohiko jarduera, legez ezarrita dituen eskumenak betetzekoa, ahaztu gabe. Irakurleek informazio guztia topatuko dute memoria honetan.

Memoria honi –eta, bereziki, Kontseiluak sustatutako txosten eta azterketei buruzko atalari– begiratuta, ekarpen garrantzitsuak egin ditugula esateko moduan gaude, nahiz eta baldintzak oso txarrak izan. Ekarpenok onuragarriak izan dira ordezkatzeko dugun gizartearentzat eta ordezkatzeko dugun unibertsitatearentzat. Eta harreman handia dute gizartearen zenbait kezkekin. Izan ere, erantzuteko dugun gaitasuna neurrigabe gaitzitzen duten arren, guztion ekarpen, ideia eta proposamenen beharra dute kezkak; baina, bereziki, Euskal Herriko Unibertsitatearen moduko erakunde garrantzitsuen bidez gizartearen ordezkatu behar dugunon ekarpen, ideia eta proposamenen beharra. Gure kasuan –bidezkoa da nabarmentzea eta eskertzea– pertsona zehatzek egin dituzte ekarpenok, lau urte hauetan zehar kalitatezko unibertsitate publikoaren izenean miresgarri jardun duten berrogeita hamar bat aholkulariek, hain zuzen ere.

Asier Aloria Sánchez.
UPV/EHUren Gizarte Kontseiluaren presidentea

iron si 172r

UPV/EHUren
Gizarte Kontseilua



Lege-esparrua

Euskal gizarteak unibertsitatean parte har dezan bermatzeko gobernu organoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua. Gizarte Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Unibertsitateko Erkidegoaren gizarte interesen alde egiten du bere kideen bitartez. Honako hauek osatzen dute Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren lege eremua: Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta Gizarte Kontseiluaren beraren Araudiak.

Gobernu-egitura

UNIBERTSITATE GOBERNU-ORGANOAK

	KIDE ANITZEKOAK	KIDE BAKARREKOAK
UPV/EHU	Gizarte Kontseilua Unibertsitate Klaustroa Gobernu Kontseilua	Errektorea Errektoreordeak Idazkari nagusia Gerentea Gerenteordeak
CAMPUSA	Campuseko Batza	Campuseko errektoreordea
ZENTROAK	Fakultate/Eskolako Batza	Dekanoa/zuzendaria Dekanordeak/zuzendariordeak Idazkaria
DEPARTAMENTUAK	Departamentuko Kontseilua	Zuzendaria
UNIBERTSITATE INSTITUTUAK	Unibertsitate Institutuko Kontseilua	Zuzendaria

Eskumenak

Euskal Unibertsitate Sistemak, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta Gizarte Kontseiluaren beraren Araudiak ezarri dituzte Gizarte Kontseiluaren eskumenak.

Harremanak gizartearekin

- ▶ Unibertsitatearen eta haren eremu kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzea, betiere unibertsitatearen jardueraren kalitatearen zerbitzura
- ▶ Unibertsitatearen eta bestelako erakunde publiko edo pribatuen arteko lankidetzak bultzatzea, ikasleen trebakuntza osatzeko eta lan merkatuan sartzeko bidea errazteko
- ▶ Ikasleak unibertsitatean egoteari buruzko arauak onestea

Eskumen ekonomiko eta finantzarioak

- ▶ Unibertsitatearen eta haren mendeko erakundearen aurrekontua eta urteko kontuak onestea Unibertsitatearen jardura ekonomikoak eta haren zerbitzuen errendimendua gainbegiratzea Gizartearen laguntza sustatzea unibertsitatea finantzatzeko eta unibertsitatearen jarduerak babesteko
- ▶ Ohiko gastuak kapital gastuetara transferitzeko eta kapital gastuak beste edozein izenburutara transferitzeko erabakia hartzea
- ▶ Unibertsitateko irakasleei banako ordainsari kontzeptu espezifikoaren hezkuntza eta ikerketako eskakizunetarako edo merezimendu aipagarrietarako
- ▶ Titulu ofizialik ez duten ikasketetarako prezio publikoak finkatzea

Zentroak eta ikasketak sortzea

- ▶ Fakultateak, Goi Mailako Eskola Teknikoak, Unibertsitate Eskolak eta Unibertsitate Institutuak sortzeko eta kentzeko proposamena egitea
- ▶ Ikerketako edo sorkuntza artistikoko institutu edo zentro publikoak edo pribatuak unibertsitateari unibertsitate-institutu gisa atxikitzeko hitzarmenak proposatzea.
- ▶ Unibertsitate-ikasketak ezartzeko, aldatzeko edo kentzeko proposamena egitea.

Osaketa

UPV/EHU-REN GIZARTE KONTSEILUA

OSOKO BILKURA

GIZARTE-KIDEAK

Eusko Legebiltzarrak

8

izendatu ditu

Lurralde Historiko
bakoitzeko Batzar
Nagusiek

3

proposatu dituzte

EAEEn ordezkari-kopuru
handiena
eskuratu duten
sindikatu-erakundeek

3

proposatu dituzte

Euskal Enpresarien
Konfederakuntzak

3

proposatu ditu

1

Gizarte
Kontseiluko
burua

KIDE AKADEMIKOAK

Unibertsitateko
Gobernu Kontseiluko

6

ordezkari eta kide

Errektorea

Idazkaria

Gerentea

Irakasleen ordezkari 1

Ikasleen ordezkari 1

AZP-ren ordezkari 1

UPV/EHU-REN GIZARTE KONTSEILUA

BATZORDEAK

BATZORDE IRAUNKORRAK

Koordinazio Batzordea
Gizarte
Harremanetarako
Batzordea
Batzorde Ekonomikoa
eta Finantzarioa
Akademi eta
Euskara Batzordea
Plan Eragilearen
Batzordea-Gizarte
Kontseiluaren Plan
Estrategikoa

ALDI BATERAKO BATZORDEAK

Titulu Propioen
Batzordea
UPV/EHU-ren, haren
Gizarte Kontseiluaren
eta Egailan Eusko
Jaurlaritzako Sozietate
Publikoaren arteko
Lankidetzarako
Hitzarmena
Unibertsitateko
tituludunen lan
merkatuaren behatokia
garatzeko proiektuari
jarraipena egiteko
Batzordea

Gizarte Kontseiluko Kideak

2010eko urtariletik 2013ko abendura

KONTSEILUBURUA:

Asier Aloria Sánchez
José Manuel de la Sen Larrea
Emilio Guevara Saleta
José Miguel Martínez Urquijo

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GOBERNU KONTSEILUKO ORDEZKARIAK

Errektorea:

Iñaki Goirizelaia Ordorika

Idazkari Nagusiak :

José Luis Martín González
Eva Ferreira García

Gerenteak:

Lore Bilbao Artetxe
Xabier Aizpurua Telleria

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GOBERNU KONTSEILUAK IZENDATURIKO KIDEAK

Esther Domínguez Pérez
Enrique Amezua San Martín
Jon Ander Aguirrechua Zea
Jon Ander de Ormaetxea Garaizar
Jon Insausti Maisterrena
Aitor Agirre Loroño
Aratz Castro Angulo
Lidia Rekagorri Villar
Emilio Zubia Flaño

EUSKO LEGEBILTZARREKO ORDEZKARIAK

Paulino Corcuera Muguerza
Maite Pérez Hidalgo
Ana María Deusto Porset
Iñaki Ezkerra Greño
Joseba Gurutz Gómez de Segura Otegui
Jon Moñux Agote
José Maria Ormazabal Ormazabal
Ismael Redondo Rojo
Carlos Caballero Basáñez
Antonio Sáenz de Santa María Muniategui
Félix Gallego Carrasco
Roberto Lazpita López
Pablo Peñacoba Álamo
Teresa Sagarna Alberdi

LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIETAKO ORDEZKARIAK

Arabako B.N.

Armando Llanos Ortiz de Landaluce
Mikel Unzalu Hermosa

Bizkaiko B.N.

Mikel Iriondo Bilbao

Gipuzkoako B.N.

Miren Aurkene Astibia Legorburu
Oihane Zabaleta Mujika
Ana Bereziartua Arriaran

SINDIKATUETAKO ORDEZKARIAK

José Ángel Ulazia Beristain
José Luis Ruiz García
Iñaki González Murua

EUSKAL ENPRESARIEN KONFEDERAZIOETAKO ORDEZKARIAK

Carlos Pereda Martínez de Musitu
Néstor Eriz Laskurain
Juan Antonio Sánchez Corchero
Federico San Sebastián Flechoso
Asier Aloria Sánchez
Félix Adolfo Aparicio González
José Luis García Bengoa
Pedro Tubía Ezquerria

IDAZKARI NAGUSIA

M. Pilar Elorrieta Santos

LEGELARI AHOLKULARIA:

I. Javier Rementería Ruiz

Plan Estrategikoa

2011-2014 Plan Estrategikoa

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak beste plan estrategiko bat onartu eta jarri zuen martxan 2011-2014 laurtekorako; honako hauek ziren helburu nagusiak: Unibertsitatearen proiektu estrategikoak lagundu eta babestea, UPV/EHUK gizartean duen presentzia eta interakzioa sendotzea eta Kontseiluak unibertsitate-gobernuan duen parte hartzea hobetzea.

Hiru arlo estrategikook gauzatzeko, planak hogeit bat jarduera aurreikusten zituen, urteroko planetan adierazitakoaren arabera garatzekoak. Bada, baliabide faltagatik ezin izan ditugu garatu.



2010_2013

2010/2013 osoko bilkuran
jorratutako gaiak





2010

143.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontua.

144.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko urtarrilaren 27an izandako ehun eta berrogeita bigarren eta ehun eta berrogeita hirugarren bileren aktak irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2009ko abenduaren 31n.
- ▶ UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Errekurtsoak/eskaerak.
- ▶ UPV/EHUK Cidemco-Tecnalia Fundazioan parte hartzea.
- ▶ Lehen enpleguaren behatokia. 2010eko urtarrileko txostena.
- ▶ Unibertsitateen benchmarking-a ikaskuntza iraunkor alorrean.
- ▶ Ikerkuntza-emaizen hedapena. Jardunbide egokiak hedatzeko estrategia.
- ▶ Ikasleen enpresa-erakunde eta hirugarren sektoreko praktika profesionalak optimizatzeko beharrezkoak diren baldintzen azterketa. Egungo egoera, jardunerako proposamenak eta jardunbide egokiak.

145.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko martxoaren 10ean izandako ehun eta berrogeita laugarren bileraren akta irakurtzea eta onestea. Ikasketa osagarriak.

- ▶ UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Honako ikerketa honi buruzko txostena: "UPV/EHUKo kanpusak unitate autonomo integral gisa gobernatzeko eta kudeatzeko egiturak eta funtzioak ezartzea".
- ▶ Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema eguneratzeari buruzko txostena.
- ▶ UPV/EHUREn parte hartzea Maite Fundazioan.
- ▶ UPV/EHUREn parte hartzea Langune Elkarte.
- ▶ UPV/EHUREn nazioarteko hedapena indartzea. Gizarte Kontseiluko hiru ordezkari izendatzea UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluan.
- ▶ Unibertsitateko Herri Hezkuntzaren Koordinazio Kontseiluan ordezkari bat izendatzea, izendatutako ordezkari batek kargua utzi duelako.

▶ 146.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko maiatzaren 5ean izandako ehun eta berrogeita bosgarren bileraren akta irakurtzea eta onestea. Gradu-titulazio ofizialak.
- ▶ Arabako Foru Aldundiaren doako lagapenaren onarpena.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2010eko martxoaren 31n. UPV/EHUK Biodonostia Institutu Elkartean parte hartzea.
- ▶ UPV/EHUREn Urte Anitzeko Inbertsio Programa. Ikasleen praktika profesionalak: aginte-koadroa.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren 2011-2014 Plan Estrategikoa.
- ▶ UPV/EHUREn jarduera gizarteari komunikatzeko beharrezko informazioaren egitura eta edukien proposamena. Nazioarteko Bikaintasuneko Campuserako UPV/EHUKo kandidatura: Euskanpus Proiektua.

▶ 147.a

Osoko Bilkura

- ▶ Gradu-titulazio ofizialak.

148.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko ekainaren 16an eta 22an izandako ehun eta berrogeita seigarren eta ehun eta berrogeita zazpigarren bileren aktak irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.
- ▶ 2010-2011 Master Ofizialak.
- ▶ 2010-2011 Berezko Tituluak.
- ▶ UPV/EHUko ikasleen Iraunkortasunari buruzko Arautegia. 2010-2011 ikasturteko elkarkidetza diru-laguntzak banatzea. Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea.
- ▶ UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak. Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Lan-barneratzeari buruzko inkesta. 2006ko promozioa.

149.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko uztailaren 14an izandako ehun eta berrogeita zortzigarren bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.
- ▶ UPV/EHUK Zain Fundazioan parte hartzea.
- ▶ UPV/EHUK UNIVALUE, S.L.-n parte hartzea.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2010eko ekainaren 30ean. Titulu propioa: Giza Zientziak. Esperientziaren gelak. Prezioak.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. "CAD/CAE Ingeniaritza, kalkulu eta elementu infinituen bidezko simulazio numerikoko ikastaro aurreratua". Prezioak.
- ▶ UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.

150.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko urriaren 6an izandako ehun eta berrogeita bederatzigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ III. deialdiari dagozkion irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena.

- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2010eko irailaren 30ean.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen merituen ebaluaketa eta ordainsari-osagarri gehigarrien esleipena eskatzeko IV. deialdia.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak. Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Unibertsitateko 2009ko Txosten Ekonomikoa.
- ▶ 2007-2010 Plan Estrategikoa. 2010 Plan Operatiboa. Herri Administrazioetako defizita murrizteko neurriak.

▶ 151.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko azaroaren 17an izandako ehun eta berrogeita hamargarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea.
- ▶ Osoko Bilkuren 2011ko egutegia

20
11



▶ 152.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2010eko abenduaren 15ean izandako ehun eta berrogeita hamaikagarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ 2010-2011ko Doktoregoko Irakaskuntzak.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea
- ▶ deialdiari dagozkion irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.

153.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontua

154.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko urtarrilaren 26an izandako ehun eta berrogeita hamabigarren eta ehun eta berrogeita hamahirugarren bileren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Garapenari eta munduko ekonomiari buruzko ikasketen unibertsitate institutua (Hegoa) institutu misto bihurtzea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena.
- ▶ UPV/EHUK Bilboko Ventosa bideko bi eraikinetan daukan partaidetza (%9koa) Viviendas Municipales de Bilbao – Bilboko Udal Etxebizitzak Erakunde autonomoari doan uztea.
- ▶ 2011-2015eko urte anitzeko inbertsioa.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2010eko abenduaren 31n.

155.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko martxoaren 9an izandako ehun eta berrogeita hamalagarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea. Espainiako Unibertsitateko Gizarte Kontseiluetako konferentzia. Atxikidura.
- ▶ Berrikuntza-foroa. Enplegu-sorrera berriak.
- ▶ 2010-2011ko Doktoretzako Irakaskuntzak.

► 156.a

Osoko Bilkura

- 2011ko martxoaren 30ean izandako ehun eta berrogeita hamabosgarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak. Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2011ko martxoaren 31n. Aurrekontu-aldaketak.
- San Mamesko ekipamendu-eremuko A Lursaila deritzon garai batean Bilboko nazioarteko erakustazoka zenaren finkaren jabetzatik UPV/EHUri dagokion %9 kontzentratzeko ondare-jarduerak (bereizketa, indibisioa iraungitzea eta lehengoratzeko-karga hedatzea).
- Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea.
- Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. Berrikustapena eta eguneratzea.

► 157.a

Osoko Bilkura

- 2011ko maiatzaren 11n izandako ehun eta berrogeita hamaseigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak. Aurrekontu-aldaketak.
- 2004, 2005, 2006 eta 2007 gradu-ondoko promozioak. Lan-barneratzeen emaitzak, jasotako trebakuntzaren maila eta adierazle nagusien eboluzioa.

► 158.a

Osoko Bilkura

- 2011ko ekainaren 17an izandako ehun eta berrogeita hamazazpigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- 2011-2012 unibertsitateko master ofizialak
- 2011-2012 berezko tituluak.
- 2011-2012 ikasturterako Elkarlanerako Diru-laguntzak banatzea.
- Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- Aurrekontu-aldaketak
- 2007ko gradu-promozioa. Laneratzeari buruzko inkesta.
- Gradu Titulazio ofizial berriak: Energia Berriztagarrien Ingeniaritza, Fisioterapia, Arkitekturaren Oinarriak.

159.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko uztailaren 13an izandako ehun eta berrogeita hamazortzigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Aurregraduko Titulu propioa: Giza Zientziak. Esperientziaren gelak. Prezioak. Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Errekurtsoak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak. Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2011ko ekainaren 30ean.
- ▶ Euskal Meatzaritzaren Museoa Fundazioari "Humphreyren espirala" deritzon ekipamendua ematea, Meatzaritza eta Herri Lanen Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolaren kanpoan dagoena.
- ▶ Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak CICtourGUNE Turismoaren Alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroan parte hartzea.

160.a

Osoko Bilkura

- ▶ UPV/EHuren 2008eko Fiskalizazio Txostena. HKEE-ko Presidentearen azaltzea.
- ▶ Unibertsitateko 2010eko Txosten Ekonomikoa.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea. Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2011ko irailaren 30ean.

161.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko azaroaren 16an izandako ehun eta hirurogeigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea. Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- ▶ IV deialdiari dagozkion irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea. Osoko Bilkuren 2012ko egutegia.
- ▶ Erabaki proposamena: Elgoibarko Makina Erreminten Hezkuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola UPV/EHUri atxikitzea.

20
12



▶ 162.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko abenduaren 14an izandako ehun eta hirurogei batgarren bileraren akta irakurtzea eta onestea. Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea. 2012-2017 aldirako UPV/EHuren Plan Estrategikoaren oinarriak

▶ 163.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko otsailaren 1ean izandako ehun eta hirurogeita bigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ MEDEA master eta doktorego eskola.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Epaiak betearaztea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2011ko abenduaren 31n. Auditoria-txostena.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren 2011. urterako aurrekontua.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Unibertsitatera sartzeko proben. Errektorearen txostena.
- ▶ Gizarte Kontseiluburuaren ordezkaria izendatzea Gobernu Kontseiluan.

▶ 164.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontua. Onarpena Irizpena.

165.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2011ko martxoaren 7an izandako ehun eta hirurogeita hirugarren bileraren akta irakurtzea eta onestea. Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Errekurtoak.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Polymat Fundazioan parte hartzea.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Achucarro Basque Center-ean parte hartzea.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Bc Materials Fundazioan parte hartzea.
- ▶ Preso dagoen biztanleriaren goi mailako hezkuntzarako sarbidea.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.

166.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko martxoaren 23an izandako ehun eta hirurogeita laugarren eta ehun eta hirurogeita bosgarren bileren aktak irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Akatsen zuzenketa, berresleipenak, eta epaiak betearaztea.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza – informazioaren egoerak, 2012eko martxoaren 31n.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Puntueus Fundazioan parte hartzea.
- ▶ Gizarte Kontseiluak Univalueren S.L. Jarraitasun Batzordean parte hartzea.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. Prezioak baliozkotzea.

167.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko martxoaren 9an izandako ehun eta hirurogeita seigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Akatsen zuzenketa, berresleipenak, eta epaiak betearaztea.
- ▶ Aurrekontu-aldaketak.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak beste erakunde batzuetan parte hartzea.
- ▶ Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. Berrikustapena eta eguneratzea.

▶ **168.a** Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko ekainaren 13an izandako ehun eta hirurogeita zazpigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Akatsen zuzenketa, berresleipenak, eta epaiak betearaztea.
- ▶ Aurrekontu-alaketak.
- ▶ Unibertsitateko zerbitzu publikotik Unibertsitatearen bi eremu deslotzea, Termibus autobus-geltokiari dagozkionak hain zuzen, eta, ondoren, Basurtoko Ospitalearen ondoan dagoen Bilboko Udalaren beste eremu baten truke ematea.
- ▶ 2012-2013ko unibertsitateko master ofizialak. 2012-2013ko titulu propioak.

▶ **169.a** Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko uztailaren 11n izandako ehun eta hirurogeita zortzigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Akatsen zuzenketa, berresleipenak, eta epaiak betegaztea
- ▶ Aurrekontu-alaketak
- ▶ Ministerioak 2012-13ko ikasturterako deitutako Elkarlaneko Bekak.
- ▶ Aurregraduko titulu propioa: Giza Zientziak. Esperientziaren gelak.
- ▶ Unibertsitateko 2011ko Txosten Ekonomikoa.

▶ **170.a** Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko uztailaren 10ean izandako ehun eta hirurogeita bederatzigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza – informazioaren egoerak, 2012eko irailaren 30ean

171.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko urriaren 14an izandako ehun eta hirurogeita hamargarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Akatsen zuzenketa.
- ▶ Osoko Bilkuraren 2013ko egutegia.



20
13

172.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2012ko abenduaren 12an izandako ehun eta hirurogeita hamaikagarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Errektorearen proposamena, gerentea izendatzeko.
- ▶ Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarrien esleipena. Akatsen zuzenketa, berresleipenak, eta epaiak betearaztea.
- ▶ Ikasketa osagarriak. Prezioak. Aurrekontu-aldaketak

173.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2013ko otsailaren 13an izandako ehun eta hirurogeita hamabigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2012ko abenduaren 31n. Auditoria-txostena.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren 2013. urterako aurrekontua.

► **174.a** Osoko Bilkura

- 2013ko martxoaren 13an izandako ehun eta hirurogeita hamahirugarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- Aurrekontu-aldaketak.
- Ikasketa osagarriak. Prezioak.
- Gizarte Kontseiluaren finantza – informazioaren egoerak, 2013ko martxoaren 30ean

► **175.a** Osoko Bilkura

- 2013ko Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontua. Irizpena.

► **176.a** Osoko Bilkura

- 2013ko maiatzaren 15ean izandako ehun eta hirurogeita hamalauugarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- 2013-2014ko Doktoregoko Irakaskuntzak. 2013-2014ko master ofizialak. 2013-2014ko berezko titulazioak.
- Ikasketa Osagarriak.
- Aurregraduko Titulu Propioa: Giza Zientziak. Esperientziaren gelak.
- Aurrekontu-aldaketak.
- Irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien esleipena. Epaiak betearaztea.
- Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola zaharra unibertsitateko zerbitzu publikotik kendu eta eraikina Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzeko eskaria.
- Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak beste erakunde batzuetan parte hartzea: RICAgeing. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deitutako 2013-2014. ikasturterako Elkarlanerako Diru-laguntzak. Haien banaketa sailen artean.

177.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2013ko uztailaren 17an izandako ehun eta hirurogeita hamabosgarren eta ehun eta hirurogeita hamaseigarren bileren aktak irakurtzea eta, hala dagokionean, onartzea.
- ▶ Unibertsitateko 2012ko Txosten Ekonomikoa. Aurrekontu-alaketak.
- ▶ Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- ▶ 2013-2014ko berezko titulazioak. Akatsen zuzenketa.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2013eko ekainaren 30ean

178.a

Osoko Bilkura

- ▶ 2013ko urriaren 9an izandako ehun eta hirurogeita hamazazpigarren bileraren akta irakurtzea eta onestea.
- ▶ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak beste erakunde batzuetan parte hartzea: Tekniker Fundazioa.
- ▶ Aurrekontu-alaketak. Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- ▶ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2013eko irailaren 30ean.
- ▶ Osoko Bilkuren 2014ko egutegia

ara nabisi

jarduera nagusiak



Plan estrategikoaren esparruan egindako txostenak eta ikerketak

Txostenak eta ikerketak


Gizarte Kontseilua hainbat txosten eta ikerketa egiten aritu da Plan Estrategikoaren barnean, honako helburu hauekin: UPV/EHUren itxura sendotzea, irakaskuntza-erakundea gizarteari hurbiltzea eta unibertsitatearen kudeaketa hobetzen laguntzea.

Txostenok Kontseiluaren webgunean daude, lau atal handitan banaturik:

- UPV/EHUren ikuspena
- Unibertsitate-enplegua
- Gizartearen ahotsa
- Unibertsitate-kudeaketarako ekarpena

Memoria honek hartzen duen epean honako hauek ageri dira:

UPV/EHUren ikuspena



Atal honetan lau txosten ageri dira.

► **UPV/EHUK gizarteari kontuak emateko adierazleak**

Gizarte Kontseiluaren bidez gizarteari kontuak ematea, legezko eskakizuna izateaz gain, UPV/EHUren eskakizun filosofikoa eta etikoa ere bada. Lana errazte aldera, unibertsitate-zerbitzuetarako adierazle-sistema diseinatzea erabaki zuten Kontseiluak. Era horretan, eta hogeitaz adierazle giltzarri esker, unibertsitatearen gizarte-helburuak zer neurritaraino bete diren neurtzen du, eta unibertsitate-zerbitzuen jarduera ebaluatzea ere errazten du; eta, bide batez, antzeko ezaugarriak dituzten beste unibertsitate batzuekin alderatzen du UPV/EHUren jarduera.

Ikerketaren emaitzak Gizarte Kontseiluaren webgunean daude eskuragarri. Emaitzei, erantsitako balioei eta helburuen betetze-mailari dagokienez, helburua gizarteari ebaluatzeko moduko informazioa eskaintzea da, informazio guztia laburbilduta eta lehenetsita. Lortutako informazioak, gizartearen oinarritzko galderei edo kezkei erantzuteaz gain, funtsezko adierazleak erakusten ditu, eta UPV/EHUK plan estrategikoan beren beregi azaldutako helburuei ere atxikitzen zaie.

Horren emaitza UPV/EHUren ikuspegi zehatza da, honako zortzi arlo giltzarri hauetan kontuak emateko orduan: testuinguruan, ikuspegi instituzionalean, estalduran, prestakuntzan, ingurunearekiko egokitzapenean, ikerketan, hizkuntza-normalizazioan eta gizarte-erantzukizunean.

Memoria honek hartzen duen epean hiru txosten egin dira (2010., 2011. eta 2012. urteetan). Adierazitako helburuak zer neurritan bete diren eta urtean zehar zenbat aurreratu den erakusten dute.

► **Egitura- eta eduki-proposamena, UPV/EHUren jarduera gizarteari helarazteko informazioari buruz**

Txosten honek komunikazioaren kanpo- eta barne-ikuspegia aztertzen du, unibertsitatearen eremuan: erreferentzia-esparruak, interes-taldeak eta komunikazio-mekanismoak. Bestalde, webgunerako edukiak proposatzen ditu, eta webgunea hobetzeko gomendioak ematen ditu.

Unibertsitate-enplegua



Atal honetan, eta memoria honek hartzen duen epearen barruan, bi ikerketa egin dira unibertsitate-tituludunen laneratzeaz: UPV/EHUko tituludunen lan-txertaketari buruzko inkesta (dagoeneko Unibertsitateko hamaika promoziori egina) eta 2004, 2005, 2006 zein 2007ko graduondoko promozioei buruzko txostena.

► **Lanean txertatzeari buruzko inkesta**

Unibertsitate-tituludunen lan-txertaketari buruzko inkesta behatoki iraunkorra da, tituludunen lanbide-tasen eta lanbideon kalitatearen zein egokitasunaren berri izateko. Gizarte Kontseiluak 1999ko uztailan sortua, Behatokia plan estrategikoaren zati da.

Memoria honek hartzen dituen lau urteetan egindako inkestak 2005, 2006, 2007 eta 2008ko promozioei buruzko datuak eman ditu, eta dagoeneko hamaika unibertsitate-promozio ikertu ditu. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte Kontseiluak eta Lanbide sozietate publikoak urtero sinatzen duten hitzarmenari esker egina da inkesta. Inkestaren emaitzak balio handikoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako irakaskuntzaz erabakiak hartzeko.

► **2004-2007 aldiko graduondokoei buruzko txostena**

Txosten honek 2004 eta 2007 urteen arteko promozioen ezaugarriak agertzen ditu. Hezkuntzaren eta lanpostuaren arteko lotura, lanpostuaren kalitate-adierazleak eta graduondoko hezkuntzaren gogobetetze-maila ere aztertzen ditu.

Aztertutako promozioei buruzko inkesten eta txostenen emaitza guztiak honako webgune honetan daude eskuragarri (gaztelaniaz): <http://gizartekontseilua.com/category/insercion-laboral>

Topalekua.
Informazio-buletina



► **55**
zk. 02/2010

XX. urteurrena: Kontseiluan islatu da gizarteak Unibertsitateari emandako laguntza

Gizarte Kontseiluak ontzat eman du 2010. urterako UPV/ EHUko aurrekontua, 483,4 milioi eurokoa



► **56**
zk. 03/2010

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak plan operatiboaren lau ikerketa berriak aztertzen ditu

Lehen Unibertsitate Enpleguaren Behatokia

Ikaskuntzaren hedapena
Ikaskuntza iraunkorra



► **57**
zk. 05/2010

Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatea nazioartera zabaltzeko proiekturik onenari saria sortu du

UPV/EHU-k badu adierazleen sistema gizarteari kontuak emateko

Campusak zuzentzeari eta kudeatzeari buruzko ikerketa



► **58**
zk. 07/2010

Gizarte kontseiluak ahalegin guztia egingo du UPV/EHU-ko proiektu estrategikoetan, eta unibertsitatearen presentzia soziala indartzeko

Gizartearekiko komunikazioa hobetzeko proiektu bat

Gizarte Kontseiluak Hezkuntza Sailari 68 Gradu-titulu ezartzea proposatu dio

Kontseiluaren Presidentea legebiltzarraren aurrean agertu da, Plan Estrategikoaren gauzatze-mailaren berri emateko



► **59**
zk. 08/2010

Laneratzea jaitsi egin da, baina enplegu doituia igo egin da

Gizarte Kontseiluak onartu du UPV/EHU-ko 39 titulu propioetako 34 tituluren matrikula- prezioak mantentzea



► **60**
zk.  **10/2010**

Gizarte Kontseiluak onartu egin du UPV/EHU-k UNIVALEU enpresan eta ZAIN FUNDAZIOAN parte hartzea

UPV/EHU Nazioarteko Bikaintan Campusa da jada

Euskadi dago 20 eta 29 urte bitarteko Zientzia eta Teknologia graduatuen buruan Europar Batasunean



► **61**
zk.  **11/2010**

UPV/EHU-k ordainketa osagarri gehigarrien esleipenak lortzeko IV. deialdia onartu du

Emilio Guevara, Gizarte Kontseiluko presidente berria

CVD 2009 txostenak unibertsitatea gobernatzeko nazioartekoratzeko moduan eta finantziazioan berehalako aldaketak eskatzen ditu

Gizarte kontseiluek eta Anecak ikasleen jarraipena unibertsitatean ikertuko dute



► **62**
zk.  **12/2010**

Gizarte Kontseiluak 2011. urterako Osoko bilkuren egutegia eta hainbat akordio ontzat eman ditu, UNIGRAU-ek jakinarazi dion osagaiei buruzko epaiei dagokienez

Espainiako unibertsitarioen erdiak baino gehiago dio prestakuntza ez datorrela bat lan merkatuarekin



► **63** zk. 02/2011

Gizarte Kontseiluak 445,3 milioi euroko aurrekontua onartu du UPV/EHU-rako 2011n, aurreko ekitaldian baino % 7,8 gutxiago

UPV/EHU Euskal Autonomia erkidegoko eragile zientifiko nagusia da, "Euskal Autonomia erkidegoko zientziari buruzko Txostena 2010" txostenaren arabera



► **64** zk. 03/2011

Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatearen urte anitzeko Inbertsio Plana onartu du, 146 milioi euroko hornidurarekin 2015era arte

UPV/EHU, Espainiako laugarren unibertsitatea ekoizpen zientifikoaren kalitateari dagokionez



► **65** zk. 04/2011

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak doktoregoan beste 10 irakaskuntza ezartzea proposatu dio hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailari

25.urteurrenean, unibertsitate publikoetako gizarte kontseiluek euren zeregina aztertu dute



► **66**
zk. 05/2011

Kontseiluak UPV/EHU-ren kontu emateko adierazle-sistemari buruzko 2011ko txostena aztertu du

Kontseiluen batzarra "Valladolideko manifestua" irakurrita amaitu da



► **67**
zk. 07/2011

UPV/EHU-n graduondoko ikasketak egin eta hiru uterra, ikasleen % 86,55 lanean ari zen

José Manuel de la Sen lehenengo aldiz izan da Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuraren burua



► **68**
zk. 08/2011

Datorren urterako UPV/EHU-ren eskaintzan 3 gradu eta 12 master ezartzea onartu du Gizarte-Kontseiluak

UPV/EHU-n titulaturako pertsonen ia %80k lana zuen ikasketa bukatu eta sei hilabetera



► **69**
zk. 10/2011

Gizarte Kontseiluak UPV/
EHU bazkide gisa onartu du
COCtourGUNen

Euskadi, autonomia erkidegoen
buruan lan biztanleriaren
hezkuntza mailaren arabera

CONFEBASKek ordezkari berriak
izango ditu Kontseiluan



► **70**
zk. 11/2011

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak
Gizarte Kontseiluari aurkeztu
dio 2008ko UPV/EHUKo
Fiskalizazioaren Txostena

"Urrutira iristeko kemena",
Espainiako goi-mailako hezkuntza
erreformatzeko 25 gomendio

Unibertsitate publikoetako
gizarte-kontseiluek
bikaintasunaren erronkak
aztertzen dituzte



► **71**
zk. 12/2011

Gizarte Kontseiluak onetsi
du Elgoibarko Txandakako
Ingeniaritza Eskola UPV/EHUri
atxikitzea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordeak (EGAB)
hamar proposamen zehaztu
ditu, prestakuntza gizarte eta
ekonomia-eskaerei egokitzeko

Bilboko Irakasleen Eskolak
instalazio berriak estreinatut ditu



72 zk. 02/2012

Errektoreak gizarte kontseiluaren oso bilkurari aurkeztu zizkion UPV/EHU-ren Plan Estrategikoaren oinarriak

Euskadi EB-ren enplegu helburuetara hurbiltzen da, baina gazteen enplegu tasa batez bestekoaren azpitik dago

"Erasmusa denontzat", 19.000 Milioi 5 milioi europarren mugikortasuna zabalazteko



73 zk. 03/2012

Gizarte-kontseiluaren osoko bilkurak aldeko txostena eman dio Mastereroko eta Doktoregoko ikasketen unibertsitate-eskola eratzeari

EAE-ko zientzia eta teknologia Plana: 9.000 milioi inbertituko dira I+G arloan datozen lau urteetan

Krisia egon arren, enplegu kualifikatua igo egin da EAE-n



74 zk. 04/2012

Gizarte kontseiluak UPV/EHUren 2012rako aurrekontua onartu du, guztira 432 milioi eurokoa

EB-k goi hezkuntza modernizatzeko bere proposamenak aurkeztu ditu eta "gazteentzako aukerak" ekimena abiarazi du

Teknalia ikerketaren europar rankingaren lehenengo 25 sailkatuen artean



► **75**
zk. 07/2012

Gizarte-kontseiluak zortzi master-ikasketa berri ezartzea onartu du, eta berezko tituluen tasak finkatu ditu

2008an ikasketak bukatu zituzten lau tituludunetakoa hiruk lan egiten du; eta % 87,5ek ikasketekin bat datorren lanpostu bat dauka

«UPV/EHU-k gizarte-ari kontuak emateko adierazleen sistema» 2012ko txostena aurkeztu da



► **76**
zk. 11/2012

Gizarte-kontseiluak 2011ko kontabilitate-egoerak onetsi ditu

EGAB-K memoria sozioekonomikoa 2011 argitaratu du. Bilakaera ekonomikoa txarra izan arren, I+G+b-ko inbertsioa handiagoa izan dela egiaztatzen du

Euskadi, tituludunen laneratze-tasaren buruan

Etengabeko hezkuntza- praktika egokiak, unibertsitatei zuzenduak

UPV/EHU-ko Ingeniaritza Teknikoek egoitza berria estreinatu dute



► **77**
zk. 12/2012

Gizarte-kontseiluak 2013ko osoko bilkuren egutegia onartu du

BBVA-IVIE txostena: Jakintzari lotutako faktoreak erabiltzearen ondorioz, krisiaren erdian hobetzen ari da enpresen produktibitatea

Europako Batzordeak Hezkuntza berriz planteatzea izeneko Estrategia abiarazi du, gazteen arteko langabeziari aurre egiteko



► **78**
zk. **02/2013**

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak Errektorearen proposamena onartu du, Lore Bilbao UPV/EHU-k o gerente izendatzeko

Enpresa berritzaileen kopuruak behera egin badu ere, I+G-n egindako ahalegina handitu egin da

UPV/EHU zazpigarren unibertsitatea da ikerketa-ekoizpenaren zerrendan, eta lehena bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoetan

Euskadi lehena da lan-asebetetzea, ordainsariak eta enplegu kualifikatua neurtzeko zerrendetan



► **79**
zk. **03/2013**

Gizarte kontseiluak 2012ko aurrekontuaren likidazioa onartu du

Ministroak autonomia erkidegoei aurkeztu die Unibertsitate-Sistemari buruzko txostena, adituek eginga

Euskadik zazpi urtean bikoiztu zuen ekoizpen zientifikoa

EAE: Ikasleko gastu arruntik handiena duen autonomia erkidegoa



► **80**
zk. **05/2013**

Asier Aloria, Kontseiluko presidente berria

Gizarte kontseiluaren osoko bilkurak ikasketa osagarrien 8 ikastaroren matrikula-prezioak onartu ditu

Langabeziak graduondoko ikasketak dituzten pertsonen % 8,8ri "soilik" eragiten dio

EAEko langileen % 31,4 bere prestakuntza-mailatik beherako lanpostuetan dago

ELGA-ren eta EB21-en
hezkuntzako batez besteko
gastua baino % 15 handiagoa da
Espainiako estatukoa

[illegible]

Atzerrira emigratzen duten
EAE-ko tituludunen kopurua
handixeagoa da

[illegible]

ikasleek gero eta ziurgabetasun
handiagoa dute



www.gizartekontseilua.com

UPV/EHUko Gizarte
Kontseiluaren
webgunea

Memoria honek hartzen duen epean Kontseiluak une oro izan du webgunea eguneraturik, organoak egindakoari buruzko informazioa biltze aldera. Horrez gain, intraneta aholkulariekin komunikazio-tresna eta -bide gisa ere hobetu du. Horrek bizkortu egin du osoko bileren aurretik egin beharreko dokumentazio-prozesua, eta lagundu egin du papera euskarri gisa erabiltzeari uzten.

Gizarte Kontseiluaren webgunean (www.gizartekontseilua.com) UPV/EHUko Kontseiluak 1998tik egindako jarduerak, lanak eta argitalpenak ageri dira. Nahi izanez gero, posible da 1998. urtea baino lehenagoko informazioa eta dokumentuak eskatzea.